



## 9.ZKI

### **ZERBITZUAK ESKAINI EDO GIZA-KULTUR JARDUERAK ETA AISIALDIKOAK EMATEAGATIKO PREZIO PUBLIKOAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA FISKALA**

#### **1. Artikulua**

Udal honek, Lurralde Historikoko Hazienda Lokalen Arautzailea den uztailaren 5eko 11/89 Foru-Arauaren 43 artikuluan ezarritakoaren arabera, ZERBITZUAK ESKAINI edo JARDUERAK BURUTZEAGATIKO PREZIO PUBLIKOAK ezarri eta exijitzen ditu, Eranskineko Tarifetan zehaztuak eta Ordenantza honetan sartzen diren arauen arabera, haiek parte direlarik.

#### **2. Artikulua**

Ordenantza udalerrri osoan aplikatuko da.

#### **3. Artikulua**

1 - Ordenantza honetan arautzen diren PREZIO PUBLIKOAK, zerbitzu eta jardueren onura izan dezaketenek ordainduko dituzte.

2 - Ordezko subjektu pasiboen kontzeptuan, zerbitzuaz onura hartzen duen inmuebletako jabeak edo jabeakideak daude beharturik berau ordaintzera, tasa errentero edo maizterrengan oihartzuntzeko eskubidearen kaltetan izan gabe.

#### **4. Artikulua**

Prezio Publikoaren zenbatekoa, eskainitako Zerbitzu edo burututako jarduera bakoitzerako, Eranskinean azaltzen den tarifaren arabera gertatzen dena, BEZa aparte, izango da.

#### **5. Artikulua**

Kopuru eskagarriak, eskatutako edo egindako zerbitzu edo jarduera bakoitzagatik ordainduko dira eta dagozkien epigrafetan aipatzen diren zenbatekoetan ezin zatikatuko dira.

#### **6. Artikulua**

Ordenantza honetan aipatzen diren zerbitzuen eskaintza edo jarduerak burutzerako, Udal Administrazioari eskatu beharko zaio beren eskaintza edo burutzea. Zerbitzu edo jarduera horiek emantzat joko dira, kasua balitz, Ordenantza honetan araututako prezio publikoak ordaintzeko baldintzapean eta behin luzatu ondoren, prezio publikoa ez ordaintzeak automatikoki zerbitzua ez eskaintzea edo jarduera ez burutzea ekarriko du.

#### **7. Artikulua**



Ordenantza honetan araututako prezio publikoen ordaindu beharra zerbitzuaren eskaintza edo jardueraren burutzea hasten denetik izango da.

Hala ere, emandako eta luzatutako zerbitzuen eskaintza edo jarduerak burutzeagatiko kasuan, ordainketaren beharra dagozkien tarifetan jartzen diren epealdi natural bakoitzaren lehenengo egunean hasiko da.

## **8. Artikulua**

Honela egingo da prezio publikoaren ordainketa:

a) Zerbitzuen eskaintza edo jarduerak burutzeagatiko kasuan, udal kutxetan sarrera zuzenaren bidez gordekizuna emanaz, zerbitzuen eskaintza edo jardueraren burutzearen aurretiaz eta adierazitako kopuru gutxienarengatik.

b) Zerbitzuen eskaintza edo jarduerak burutzeagatiko aurretiazko gordekizuna posible ez deneko kasuan, Administrazioak dagokion kontuan aurkezten duenean.

c) Urteroko zerbitzuen eskaintza edo jardueraren burutzea direneko kasuan, prezio publikoen matrikuletan sartu ondoren, urte naturalez.

## **9. Artikulua**

Prezio publikoaren ordainketara behartuta dagoenari ezin egotzi zaizkion arrazoiengatik, jarduera burutzen ez deneko kasuan, dagokion zenbatekoa itzuli egingo da.

## **10. Artikulua**

Prezio publiko hauengatiko zorrak premiamenduzko administrazio prozeduraren bidez eskatu ahal izango dira.

## **11. Artikulua**

Prezio Publiko honen likidazio, dirubilketa eta ikuskapenari dagokionez, bai eta, hala badagokio, tributuen arau-hausteen kalifikazioa eta dagozkion zehapenen zehaztapena ere, Tributuen Foru-Arauan aurreikusitakoa aplikatuko da.

## **AZKEN XEDAPENA**



Aretxabaletako  
Udala

Honako ordenantza fiskala eta bere eranskina 2008ko urriaren 13an izandako Osoko bilkuran onartua izan zen eta 2009ko urtarrilaren batean indarrean sartu zen. Ordenantza hau aplikatu egiten da aldaketen historialean jasotzen diren aldaketekin eta indargabetzea erabakitzen den arte indarrean egongo da.

#### ALDAKETEN HISTORIA

| Osoko bilkuran onartutako eguna | G.A.O.n argitaratutako zenbakia eta eguna | Indarrean sartu den eguna | Aldatutako artikulak     |
|---------------------------------|---|---------------------------|--------------------------|
| 2008 URR 13                     | 251- 08 ABE 31                            | 09 URT 1                  | Hasierako onarpena       |
| 2009 URR 05                     | 246- 09 ABE 30                            | 10 URT 1                  | A epigrafearen prezioak. |
| 2010 URR 07                     | 244- 10 ABE 23                            | 11 URT 1                  | Prezioak.                |

**ALKATEA,**

**IDAZKARIA,**



## ERANSKINA

ZERBITZUAK ESKAINI EDO GIZA-KULTUR JARDUERAK ETA AISIALDIKOAK EMATEAGATIKO PREZIO PUBLIKOAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA FISKALA.

### I. ONESPEN-DATA: 2010EKO URRIAK 7

### II. TARIFAK – PREZIO PUBLIKOAK

Aipatzen diren kasu guztiei BEZ-a gehitu behar zaie.

#### A EPIGRAFEA Pertsonalaren zerbitzuak ematea

|                                       |         |
|---------------------------------------|---------|
| AOT orduko eta frazioako.....         | 45,60 € |
| Arduraduna orduko eta frazioko .....  | 35,85 € |
| Ofiziala orduko eta frazioko .....    | 30,45 € |
| Beste batzuk orduko eta frazioko..... | 22,80 € |

#### B EPIGRAFEA Lokalak alokatzea, noizbehinkako jardueretarako

Noizbehinkako jarduerak dira hilabetez behingo maiztasunetik beherakoak

#### “ARKUPE” KULTUR ETXEKO ZARAIA ARETOA

|  |          |
|--|----------|
| Ordukako erreserba (ordu beteko alokairua, gutxienez) .....    | 53,43 €  |
| Egun erdiko erreserba (lau ordu goizez nahiz arratsalde) ..... | 181,66 € |
| Egun osoko erreserba (zortzi ordu egun bakar batean).....      | 320,59 € |

#### “ARKUPE” KULTUR ETXEKO ERABILERA ASKOTAKO GELAK

|  |          |
|--|----------|
| Ordukako erreserba (ordu beteko alokairua, gutxienez).....     | 21,37 €  |
| Egun erdiko erreserba (lau ordu goizez nahiz arratsalde) ..... | 72,13 €  |
| Egun osoko erreserba (zortzi ordu egun bakar batean) .....     | 128,24 € |

#### BESTE UDAL LOKAL BATZUK

|  |         |
|--|---------|
| Ordukako erreserba (ordu beteko alokairua, gutxienez) .....    | 10,69 € |
| Egun erdiko erreserba (lau ordu goizez nahiz arratsalde) ..... | 36,52 € |
| Egun osoko erreserba (zortzi ordu egun bakar batean) .....     | 64,12 € |

#### C) Lokalak alokatzea, ikastaroetarako eta maiztasun jakin bateko jardueretarako



Aretxabaletako  
Udala

Ikastaroak eta maiztasun jakin bateko jarduerak dira, hilerio 4 ordu edo lau ordutik gorako dedikazioa eskatzen dutenak.

**“ARKUPE” KULTUR ETXEKO ERABILERA ASKOTAKO GELAK**

Erabilera ordu bakoitzeko prezioak ..... 12,47 €

**BESTE UDAL LOKAL BATZUK**

Erabilera ordu bakoitzeko prezioak ..... 6,24 €

**ALKATEA,**

**IDAZKARIA,**